

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran onetsitako beste gai batzuk

*Curriculum egokituko programak zazpi ikastetxeetan finantzatzeko, milioi bat eurotik gorako diru-laguntzak nabarmendu dira*

Asteazkena, 2018.eko urriak 10

### Milioi bat euro baino gehiagoko diru-laguntzak onetsita Curriculum egokituko programak finantzatzeko 7 ikastetxeetan

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran Unibertsitate eta Hezkuntza Baliabideetako zuzendariari Curriculum egokituko programak finantzatzeko 1.049.790 euroko diru-laguntzak modu zuzenean bideratzeko akordioa onetsi du. Honako zazpi ikastetxe hauek jasoko dute:

Haritz Berri Baserri Eskola (Ilundáin / Ilundain): 307.765 euro; Berriztu Hezkuntza Elkartea (Ilundáin / Ilundain): 18.282 euro; Etxabakoitz Lantegi Eskola (Pamplona / Iruña): 180.800 euro; Puente zentroa (Gares): 180.800 euro; Lantxotegi Lantegi Eskola (Berriozar): 90.400 euro; eta "El Castillo" Lantegi Eskola (Tutera): 90.400 euro.

### NPBaren ordainketari lotutako aplikazio informatikoa erabiltzeko Estatuarekin hitzarmena sinatzea adostu da

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran NPBaren kudeaketa, kontrola eta zuzeneko laguntzen 2018, 2019 eta 2020 urtetako zenbatekoa zehazteko, Estatuarekin aplikazio informatikoa mantentzeko hitzarmena sinatzea onartu du.

Sistema hau finantzatzeko, Exekutiboak 359.352 euro gorde ditu, urteko 119.784, hiru urtetan zehar.

### Ablitasko Parke Eolikoaren UEPSren aldaketa jendaurrean erakustea

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, Ablitasko Parke eolikoaren Udalez gaindiko Eragina duen Proiektu Sektorialaren (UEPS) aldaketa jendaurrean erakutsiko da; hau da, aerosorgailuen kopurua murrizteari eta aerosorgailuak berriz kokatzeari buruzkoa, Eólica de Navarra, SLk sustatua.

Jendaurrean 30 eguneko denboraldian erakutsiko da. Espedientea interesatuen eskura egongo da Landa Garapene, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentuaren bulegoetan (González Tablas kalea 9, Iruña). Halaber, epe horretan, egokitzat jotako alegazioak aurkeztu ahal izango dira. Horrez gain, dokumentua web honetan kontsultatu ahal izango da: [www.ExposicionpublicaOT.navarra.es](http://www.ExposicionpublicaOT.navarra.es).

### Doneztebe-lrurtzun bizikleta bidearen UEPSarengatik kaltetatutako ondasun eta eskubideen okupazioa

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran Doneztebe-Irurtzun bizikleta bidearen Udalez gaindiko Eragina duen Proiektu Sektorialean (UEPS) jasotzen diren lanek kaltetutako ondasun eta eskubideen nahitaezko desjabetzea premiazkoa izendatu du.

Proiektu honen helburua Doneztebe eta Irurtzun, Plazaola eta Bidasoako bide berdeak lotzen dituen eta Nafarroako Euroveloren zati bat (Iruñatik Endarlatsara) hartzen duen bideen arteko bizikleta bidea egokitzeko beharrezkoak diren baldintzak zehaztea da. Proiektu honek guztira 52km ditu.

Ederbidearen barne kokatzen den ekintza honen aurrekontua 236.845 eurokoa da eta POCTEFaren finantziazioa du.